

Nafarroako Gobernuaren kultura egitaraua datorren asterako

BISITAK

[Irakasleak prestatzeko ikustaldia](#)

Oteiza Museoak

Asteazkena. 17.30etan

"Macla, mamua, bismuto, vicario" erakusketa berria

Erakusketan zeharreko ibilbide gidatua, egungo sorkuntza praktiketan epistemologia berriek duten presentziaren inguruko gogoetarako eszenatokitza, Oteiza Museoko Didaktika arduradun Aitziber Urtasunekin.

[Ondarearen Europako Jardunaldiak](#)

Ostirala - igandea

Nafarroak aberastasun berdingabeko kultur ondarea du (monumentuak, aztarnategiak, ondasun higigarriak, gazteluak eta abar). Gobernuak ondare horri guztiari balioa eman nahi dio eta hiritar guztiekin partekatu nahi du.

[Pasaporteak jMuseatu! eta bidaiatu](#)

Museoak eta bildumak

2018/04/20 - 2018/10/20

Bidaia bat prestatzea inoiz ez da hain erraza izan. Pasaporteak hiri eta herri berezietara txango motzak planifikatzea ahalbidetuko dizu eta arte garaikide, arte eder, arkeologia, etnografia eta pertsonaia bereziei buruzko museoetan esperientzia paregabeak bizitzeko aukera izango duzu. Anitzak eta kalitate onekoak diren bildumak eta testigantzak agertzen dituzten museo xarmangarriak. Eta hori guztia, Nafarroatik atera gabe.

Taldean edo familiarekin, bikotearekin edo bakarrik, hamahiru museo eta bilduma hauek zain dituzu haien bilduma eta jardueraz zurekin gozatzeko. Gainera, hiru baino gehiago bisitatzen badituzu, sariak lor ditzakezu.

Pasaporteak pertsonala eta/ edo familiarra da. Doakoa da eta hamahiru zentroetan eskuratu daiteke sarreran. Erakunde bakoitzaren zigilua bisita egindakoan eskuratuko da.

[Katedraleko klaustroaren lana](#)

Iruñeko katedrala

10.00etan, 11.00etan, 12.00etan,

Bisitak doakoak dira, eta hiru ordu hauetan egiten dira: 10:00, 11:00 eta 12:00etan. Ordubeteko iraupena dute, gutxi gorabehera. 14 urtetik gorakoak izan behar dute bisitariak, eta mugikortasun-arazorik ez izan. Oinetako lau eta erosoak eraman beharko dituzte, obrako aldamiotik ibili beharko baitute.

ERAKUSKETAK

[La Gloriosa iraultzaren \(1868\) 150. urteurrena](#)

Nafarroako Errege Artxibo Nagusia

2018/09/01 - 2018/09/30

Erakusketa hau “La Gloriosa-ren 150.urteurrena (1868)” iraultza famatu horren omenaldia da eta Nafarroako Errege Artxibo Nagusian egongo da ikusgai irailean zehar. Sarrera dohainik izango da eta honako ordutegi honetan egongo da zabalik: astelehenetik ostiralera goizeko 10etatik arratsaldeko ordu 2etara eta arratsaldeko 5etatik 8etara.

[Macla, mamua, bismuto, vicario](#)

Oteiza Museoak

2018/07/27 - 2018/11/30

Oteiza Museoaren produkzioa, Huarte Arte Garaikideko Zentroaren partaidetza. Lankideak: “la Caixa” Fundazioa, Nafarroako Kutxa Fundazioa, Eguesibarko Udala eta Caniche Argitaletxea.

Oteiza Museoak “Macla, mamua, bismuto, vicario” erakusketa proiektua aurkezten du. Oteizaren obrari buruzko erakusketa interbentzio hau Karlos Martínez B. eta Javier Arbizu artistek berariaz ondu dute Altzuzako zentrorako eta Hazitegia programako lehen interbentzioa izango da.

[Arma isilak gerra lasaietarako](#)

Oteiza Museoak

2018/06/01 - 2018/09/30

Oteiza Museoak berreskuratu egin du Interpretazioak programa, Imanol Marrodan artistak Altzutzako zentroan egin duen “Arma isilak gerra lasaietarako” erakusketa-proiektuarekin.

Oteizaren obrarekiko topaketa-gune bat sortu nahi duen programako hamargarren interbentzioa da jada. Programa bera museoko bigarren solairuan garatzen da, erakusketa iraunkorrekiko solasean, eta Oteiza Museoak Eguesibarko Udalarekiko elkarlanean produzitu erakusketa-proiektu hau ekainaren 1etik irailaren 30era bitartean garatuko da.

KONFERENTZIAK

[Espainiako trantsizio politikoarekin bueltak \(1937-2017\)](#)

Nafarroako Filmoteka

Asteartea / 19.00etan

Nafarroako Liburutegiak eta Nafar Ateneoak “Trantsizioak, frankismotik demokraziara” zikloa antolatu dute historiaren ezinbesteko aro hau aztertzeko. Santos Juliá historialariak emango dio hasiera hitzaldiei.

[P.IG - P.IC: Pentsamendua Ikerketa Gorputza](#)

Huarte zentroa

Ostegun - larunbata. 11.30etan

P.IG – P.IC hitzaldien bidez aktibatzen den topagune bat da. Hitzaldi horietako batzuk performatiboak dira, eta “ERRESPETUA – ZAINKETA – AFEKTUAK” gaiak landuz, patroiak, paradigmak eta egiteko moldeak birplanteatzen edo/eta zalantzan jartzen dituzte, ziurtzat jotzen duguna birpentsatu dezagun eta hartaz gogoeta egin dezagun.

[Ivan Turgueniev: berrehungarren urteurrena \(1818-1886\)](#)

Nafarroako Liburutegia. Lehen solairuko Aretoa
Ostirala. 18.00etan

Kalinka elkartearen kidea de Marina Sokolova-k eskainiko du Ivan Turgueniev-en bizitza aztertuko duen hitzadi hau.

KONTZERTUAK

Leonard Cohen, olerkaria

Nafarroako Liburutegia. Erakusketa Aretoa
Astelehena.19.00etan

Kontzertua, Alberto Rodríguez Purroy

Zahagiak eta ardoak

Organo Musika Nafarroan
San Esteban. Bera
Larunbata. 18.00etan

Raúl del Toro Sola

Formakuntza Iruñean, Bartzelonan eta Amsterdamen jaso eta gero, Espainia osoan zehar eta Europako, Ameriketako eta Asiako hamaika herrialdetan eskaini izan ditu kontzertuak.

TAILERRAK

Touching Improvisation

Huarte zentroa

Astelehena - osteguna. 15.30etan

Touching Improvisation, Elkarbanaturiko bat-batekotasun laborategi gisa aurkezten zaigu, bertan, azalaren aukerak ikerketa metodo izanik, gure porputzak pentsatu eta gure ingurua ulertzeko.

Ongietorri ipuinetara

Nafarroako Liburutegia
Asteazkena. 18.00etan

Asteazkenero, gurasoek eta beste boluntario batzuek ipuinak irakurtzen dizkiete haurrei gaztelaniaz, euskaraz eta ingelesez.

Laugarrena edo hilabetearen azken asteazkenean "Asociación Amigos del Kamishibai"ren eskutik San Juan de la Cadena-ko eskolako neska-mutilak datozte ipuinak kontatzera.

Paisaia irudia

Oteiza museoa (Altzuza)

Larunbata, igandea. 10.30etan

Iranzu Antonarekin lantegia, praktika artistikora zuzendua. Lantegi honetan paisaiaren irudira hurbiltzeko modu desberdinak landuko dira. Zenbait ikusmolderi buruz hitz egingo da eta lan egiteko modu desberdi- nak garatuko dira. Gainera, Jorge Oteiza Fundazio Museoaren espazioak izan- go ditugu, eta horiek aberastu egingo dute arkitekturaren eta paisaiaren arteko harremanaren berrirakurketa, leku bat eraikitzea ahalbidetzeaz batera. Urtarrilak 27 eta 28. Larunbata, 10:30etatik 14:00ak arte eta 16:00etatik 20:00ak arte. Igandea, 10:30etatik 14:00ak arte.

Matrikula: 70 €. Parte hartze ziurtagiria emango da. Aurrez izena eman behar da didactica@museooteiza.org helbidean.

Habitación: Barruko landareak

Huarte zentroa

2018/09/07 - 2018/10/14

Bi eskultoreren arteko lankidetzak botanika arloko fenomeno baten antza izan lezake.

Toisoiaren ebasketa, escape room-ean

karlismoaren Museoan (Estella-Lizarra)

2018/05/18 - 2018/10/14

Karlismoaren Museoak dei egiten dizue parte hartzera Toisoiaren ebasketa, escape room-ean. Museoen Nazioarteko Egun eta Gauaren kariatara eginen da, 2018ko maiatzaren 18an, eta irekita egonen da 2018ko urriaren 10era arte.

ZINEMA

Memorias en la niebla

Nafarroako Filmotekaa

Asteazkena /20.00etan

Bere America, America eleberrian modu librean oinarritutako egokitzapen zinematografiko honetan, Buddhadeb Dasguptak gaur egungo Kalkutan bizi den familia baten historia aurkezten du, bereziki aita eta semearen arteko harreman korapilatsuan arreta jarritz.

Zuzendaritza eta gidoia: Buddhadev Dasgupta

Operako mamua

Nafarroako Filmoteka

Osteguna 20.00etan

CTL Irudia eta Soinua LHko eta Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioko ikasleek parte hartuko duten saio musikatua. Sorkuntza proiektua NAK Nafarroako Musika Garaikidearen Jaialdiak antolatu dituen ekintzen barnean kokatzen da.

Zuzendaritza: Rupert Julian.

De ollas y sueños

Nafarroako Filmoteka

Ostirala / 20.00etan

Perun iraultza gastronomiko bat garatzen ari da. Bere armada: sukaldaritza ikasten ari diren milaka ikasle. Bere liderra: Gaston Acurio chef perutarra. Bere armak: etnien fusioaz beteriko mendeak.